

ANAITASUNA

267. zenb.

1974.eko urtarrilaren 15ekoa

Pelota, 4 - 1.º - Bilbao-5
Tel. 23 74 49 - Apart. 495

Euskal Humanismoa



Marxen eta Euskal Herriaren arteko harremanak ez dira atzo goizekoak. Marxen aldetik behintzat, ezaguerá aspaldikoa da: Marxek euskaldunak bere gudu karlisten azterketan ezagutu zituen. Euskaldunen Marxen ezaguerá beranduxeagokoa da. Gerra aurrean euskaldun marxistak ba ziren. Geroztik euskaldun marxistarik ez da falta izan, eta gerokoan ere ez da faltako: ez ahal da faltako, behintzat!

Baina czaguera honen kondaira laburrak erakusten duenez, ba dirudi, euskaldun eta marxista bi izen hoik* ez direla ondo elkartzen. Euskaldun eta marxista: ezinezko dela dirudi. Norbaitek marxista zela esaten bazuen, eta badio, euskaldun izan daitekeenik sinestea kosta egiten zaigu. Eta askorentzat fedezko dogma ere ba da, euskaldun izanez gero, marxista izaterik ez dagoela. Euskal Herriak ez du Marxengandik asko profitatu,* edo batere ez: burruka eta haserre, buruhauste eta ezinikusi besterik* ez dio marxismoak ekarri. Marxismoak ere ez du euskaldunengandik asko profitatu: euskaldunek ez dute marxismoa aberastu (Joxe Azurmendiren «Marxismoa, Etnia eta Nazioa» alde batera uzten badugu).

Euskaldun gehienek jadanik* ba dakite, marxismoa asimilatzea ez dela gauza erraza; Euskal Herrian sartu nahi izan duen eta neurri batetan sartu den marxismoa gauza merke, dogmatiko eta itsu bat dela. Euskaldun gehienek jadanik ba dakite, marxismoaren eta nazio arazoaren harremanak ez direla ezkongai batzuenak bezain gozoak, alderantziz baizik. Euskaldun gehienek jadanik ba dakite, marxismoa ez dela jostailu* bat, ez slogan pare bat, gauza serio bat baizik; gaizki ulertuz gero eta dogmatiko bihurtuz gero, arriskuz beteriko teoria bat bilaka* daitekeela. Hori guztia ikasi dugu azken urteotan. Eta ba dirudi, horrekin lasai gelditu garela, marxismoaren arazoa betirako konpondurik gelditu balitz bezala.

Egia da, nork uka, azken urteotan euskaldun zenbaitek sinestutako marxismoak gaitz ugari sortu eta erein duela Euskal Herrian. Egia da, burruka (bukatu den neurrian) gogorra izan dela. Burruka, askoren eritzian, bukatu da; baina burrukaren alderdi bat burrukatzeko dago oraindik, nire eritziz.

Euskal Humanismoa

Burrukaren berotasunean, gauza batzuk ahantzi* egiten dira batzuetan. Esaterako: etsaiaren metodoak itsatsi* egiten direla; etsaia marxismo dogmatiko bat denean, antimarxismoa ere dogmatiko bihurtzen dela. Baina ba da hori baino okerragorik, Marxismo merke eta dogmatikoari burruka egiten bazaio, eta menderatzen bada, horrek ez du esan nahi, burruká fronte gutietan irabazi denik. Batetan behintzat ez, eta garrantzi handiko frontea dela uste dut: besteek jarritako galderaren menpeko gelditzen gara, besteek jarritako problemekin gabiltza, defentsiban, alegia.* Etsaia menderatu arren, etsaiaren eskuetan gelditzen gara.

Oraindik gehiago: Marx nor zen, Marxek zer nahi zuen, zer esan zuen, haren pentsamenduaren ekarria* europar kulturaren barruan zein izan zen erabakitzea, neurririk haundienean, besteei utzita dadukagu. Motz eta labur esanda: Marx lapurtu digute. Euskaldunak eta Marx etsai bihurtu dituzte. Eta etsaigo horretan zerbait galtzen duena, azken funtsean, ez da Marx, Euskal Herria baizik. Guk ez baititugu geure arazoak moralismo pertsonalista baten aitormena eginez bakarrik menderatuko: pertsona-osoia salbatu nahi dugu, kapitalismorik ez dugu nahi, marxismorik ere ez: sozialismo humanista bat, alegia, omen da gure helburua. Sinesmen aitormen hoik eginez, ordea, ez dugu etorkizuna ez lortuko, ez menderatuko. Horretarako, aitormen huts hoik mamiz bete behar dira: errealategai den teoria bat osatu beharra dago. Eta horretarako, berriz, laguntza guztiak guttiegi izanen ditugu. Horregatik, ez geure borondatez, ez besteen eraginez, inolako laguntzarik alde batera uzterik ez dadukagu. Marxismoa bere jatortasunean gaur egunerako laguntza bat gehiago, eta ez txikiena, izan daitekeela ukatzea, geure buruari harrika egitea litzateke.

Azken urte hauetako burrukak beste ondoren bat ukan* dezake Euskal Herriarentzat, eta ez oso pozgarria: euskal intelektualak gutti izanik, hoietako asko antimarxismo dogmatiko batera bortxatzea, intelektual hoiek beren indarrak onenak burruka antzu horretan gastatzea, jendeak intelektual hoik jarra horretara behartzea, beren posibilitate mila aldiz zabalagoak mugatuz. Joko horrekin biek galtzen dute: intelektualek, rolle bat jokatzera behartuak direlako, eta Euskal Herriak, behar dituen indarrak behar dituen lanetarako falta zaizkiolako. Hitz batekin bukatzeko: Marx salbatu behar dugu, Euskal Herriaren onerako. Marxen jabe izan behar du Euskal Herriak, bera gure jabe izaterik nahi ez baldin badugu: bera gure jabe, beldurraren bidez besterik* ez bada ere.

JOSEBA ARREGI

dezake, **daike**
digute, **deuskue**
dio, **deutso**
zaigu, **jaku**
zaio, **jako**
zaizkio, **jakoz**



Atera da 3. EUSKALDUNTZEN

**Behar beharrezkoa duzu,
zeure hizkuntza ikas eta sakontzeko.**

Liburu hau, lehen eta bigarren EUSKALDUNTZEN ikasi dutenentzat edo oinarrizko alfabetatze bat egin nahi dutenentzat egina da.

Liburu honek hamalau bat ikasgai ditu, eta bertan azaltzen dira esaldi subordinatu gehienak. Arras ongi azaltzen dira esaldiok: ikasleak, gehienik, gauza ezagunak aurkituko ditu; baina poliki poliki joko du zailago diren gauzetara. Honetaz gainera, irudiak, eskemak eta abar agertzen dira. Bigarren mailan bezala. Hiztegiaren klasifikatze bat ere egin dugu. Hitzak hizkuntzaren egiturak erabiltzeko behar ditugu, eta berek daramate egituren bizia. Hitz batzuk besteak baino garrantzitsuagoak direlarik, kontuan ukan dugu haien **noiztasun** eta **maiztasuna**.

Eska zuzenbide honetara:

«Euskalduntzen»
Ribera, 6
BILBAO-5

ANAITASUNA
BIZKAIA

HAMABOSTEROKOA

JABEA:

San Frantziskoren Hirugarren Ordenako Biltzarre Nagusia.

Batzerburu: Miguel Zapata (Goya, 25, Madrid-1)

BEHIN BEHINEKO ZUZENDARIA:

Imanol Berriatua. O.F.M.

ZUZENBIDEA:

Bulegoa: Pelota, 4-1.º Bilbao-5
Posta kaxa: 495

INPRIMATZAILE:

Imprenta AMADO - Mazarredo, 35. Bilbao-10
D. L.: BI-1.753 - 1967

NOIZ ARTE...?

Larresorok ZERUKO ARGIAN (565. zenbakian) oraintsu eskaini digun artikulu biziak, hitz erdi bat merezi du. Euskal kulturaren gorabeherak hain sakonki ezagutzen dituen pentsalari honek, luma zorrotza erabili du, gure egungo gaitzik handiena ez bada ere, segur aski neka-garrirenarik bat dugun hau aipatzean.

Egia esan, gurutzada hau, orain orainoa ez den arren, azken aldiotan inoiz baino bortizki* eta ukakorrago* ageri dela baitirudi.

Lehen «duda-mudako*» euskal jaialdi eta hizlariak isileraztera zuzentzen bazituen bere indarrak, azken aldera ekintza eremua* zabaldu nahiz dabilala esan liteke. Inor eta ezer gutti libratzen da «euskal ortodoxiaren» kantzerbero hauen haginkadetatik: editorialak, kultur zabalkunderako erakuntzak, alfabetatze kanpainak, ikastolak eta beraien antolamendu eta textugintza taldeak, kultur asteak, aldizkari, idazle, kantari eta hizlariak. Guztiok gaude gutti asko «kutsaturik», asko gara «fidagarri» ez gatzazkienok, nahi baino gehiago gara «definitzen» ez garenok.

Gutti eta zapaldu egoteak leporatzen dizkigun oztopo, eraso* eta zentsurak aski* eta gehiegi ez bailiren,* «euskaltasun aurrerakoi eta ortodoxoaren» izenean beste tribunal baten aurrean buruak makurtu beharrean aurkitzen gara, geure karneta erakutsi beharrean, koxka* edo erre diezaguten.

Urruneko lapitz gorriak ezezik,* etxeke beste honek ere murriztu* ondoren, zer esanik izanen ote dute gure izkribuek? Nekez baino nekezago, tantaka* bezala ernetzen diren euskal liburu, hitzaldi eta kultur sorkariek* iraganen ote dute «itomenaren hesia», inausketa,* uko eta boikot horien guztion ondoren?

Baina gure neo-inkisidore hauek nahitaezko deritzate suzko froga* honi, «euskaldungoaren» superbizimenerako. Nork jakin zenbat ordutako analisisien poderioz heldu diren ondorio hauetara...!

la* dena egiteko dagoen basamortu honetan, ilunabareko burukominen poderioz berdatzen hasi diren ernamiak erre eta zapaldu ondoren, nondik eta nola biztuko dute bizi berri «kutsagabe» hori? Zertan sinets? Mana eta Moisesen makilakadan ala amerikarren ordinadoreetan? Ezetza eta ukoa besterik jaregin* ez duten ezpain horik,* noiz hasiko ote zaizkigu bizi hitz sortzaileak esaten? Lapitz gorria erabiltzen eta puskatzen baizik trebatu ez diren esku horik, noiz hasiko ote zaizkigu zerbait konpon-tzen, osatzen, eraikitzen? Bestela, besteok, «fidagarri»

ez garenok ere, zerbait pentsatzen hasi beharko dugu, agian: ezintasun konplexupean kikildurik daudela, ortodoxiaren fetitxismoak zurrundu* dituela, gure kultur erditze* mingarri honi darion lur, odol eta zikinaz ziprizzintze* beldur direla;edo eta, bestela, beren buru «methodikoetan» programatu diguten etorkizun horretan, bizi eta askatasunerako, hitz batez, pluralismorako tokirik ez dagoela; Huxleyrena bezalako «Mundu Berri» standardizatu bat eskaini nahi digutela.

Standard horik euskaldun izanen balira bederen,* itxaropen horrek inkisizio bat jasateko* indarra eman liezaguke, agian. Baina nork jakin, gaitzak kentzeko, bizia eta pertsonak deuseztatzea* erabaki duenak noraino maita lezakeen biharko edo etziko bizi berria eta pertsona. Noiz arte bizi behar ote dugu absolutismo, iluminismo eta beste honelako -ismo gogaikarrien* menean? Noiz arte, gizona bezain zahar diren iratxo* eta izuargion* menean?

J. M. B.

diezaguten, **deiskuen**

digu, **deusku**

digute, **deuskue**

dizkigu, **deuskuz**

gatzazkie, **gatzakez**

gaude, **gagoz**

lezake, **leike**

liezaguke, **leiskigu**

zaizkigu, **jakuz**

GALERIA DEL LIBRO

José Angel de Zaballa

Liburudenda
Euskal liburuak



EUSKAL LIBURU AZOKA

EUSKARAZ EGITEN DA

Ercilla, 35 - Tel. 43 83 99 - B I L B O - 1 1

Axular-en HIZTEGIA

Euskara - Español - Français

Español - Euskara
Français - Euskara

Aita Luis VILLASANTE

JAKIN
bide

Zer da Hiztegi hau?

- Euskal idazlerik handienaren gordailua: hitz, esaldi eta idazmoduak jasotzen ditu.
- Euskal hitzaren ondoan espainolezko eta frantsezko itzulpenak agertzen dira. Eta hitzen ondoren esaldiak datoz.
- Hitz eta esaldiok bi eratarata bila daitezke: euskaratik erdarara nahiz erdaratik euskarara.

Zertarako da Hiztegi hau?

- Axularrengandik euskararik jatorrena ikasteko, bera baita euskal prosaren sortzaile bikaina.
- Batez ere, hitzekin batean euskal joskera jatorrak jasotzeko.
- Idazle klasikoengandik hasirik, euskararen batasuna egin dezagun.

Norentzat da Hiztegi hau?

- Lehendabizi, irakasle guztientzat beharrezkoa da. Eta berdin Unibertsitateko irakasleentzat eta aldizkarietako idazleentzat.
- Ikastola, ikastetxe eta Goi Ikastetxeetan premia-koa da, kontsulta liburu bezala.
- Euskaltzale orori oso baliozko gertatuko zaio Hiztegi hau bere irakurraldietan.

Salneurriak

650 pezeta liburudendetan.
% 10 pezeta merkeago ANAITASUNAREN abonatuentzat.

Eskabideak

JAKIN, Aránzazu, Oñate, Guip. Tel. 781172.
JAKIN, Cuartel, 2, Tolosa, Guip. Tel. 651106.

Izena

Kalea Tel.

Herria Probintzia

Elkartasunaren beharra

Sarritan entzun dugu, sistema kapitalista monopolista batean bizi garela. Baina herria ez da behar bezala ohartzen fenomeno horretaz. Enganiatuta gaude, konkurrentzi sistema batean bizi garela pentsaturik.

Egia da, arlo batzuetan (ez garrantzitsuetan) oraindik konkurrentzian bizi diren empresa asko daudela; baina egia da ere, empresa hauk,* txikiak direnez gero, Europako monopolio handien beldur direla. Hau dela eta, Gobernuak, abantail* fiskalak emanaz, batasunera bultzatzen ditu empresak, eta poliki poliki arlo gehienetan elkarretaritzen ari dira.

Behin maila honetara helduz gero, enpresek konponketak egiten dituzte, elkarri konkurrentzia egin beharrean, elkar laguntzeko.

Halako empresa batzuk* geuk ezagutzen ditugu; eta, esanplu bezala, haien jokabidea azaltzera goaz. Lau enpresek gai berdina egiten zuten, eta, orain dela bost urte, elkarri konkurrentzia egin gabe, merkatua banatzea eta prezioak jaso-tzea erabaki zuten. Urtean behin batzea nahikoa zuten, sistema horretan irauteko; baina, orain dela gutti, beste empresa berri bat sortu da, USAko baten filiala bera.

Entpresa honek, merkatuan sartzeko, besteek baino prezio merkeagoak jarri zituen, merkatuaren banaketa deseginez. Azkenean, benetako konkurrentzia sortu zen, eta, ondorioz, irabaziak sekula baino txikiagoak izan dira.

Aurtengo batzarrean empresa berria ere izan da. Hotel elegante bateko gela izkutu* batetan, bakerako elkar hizketetan bezala, nork bere harmak atera zituen mahai gainera: batek banku baten babes, besteak Gobernuaren indarra... Azkenean denak etorri ziren bat, eta, inork ezer ez izenpetu arren, argi gelditu zen, bakoitzari zer merkatu zati zegokion* eta bakoitzak zer prezioetan saldu behar zuen. Erostaile gizaixoak alferrik bilatuko du merkatuan, gora igan ez den gauzarik.

Baina ugazaben arteko konponketak ez dira hemen gelditzen. Beste horrenbeste egiten dute alokairuen* arloan ere, langileen kaltetan. Horretarako, herri bateko ugazabak batzen dira, eta beren artean erabakitzen dute, alokairuak zenbat jaso behar diren gehien. Ondo baitakite, empresa batetan lortu dena, laster inguruko langile guztiak eskatuko dutela.

Ikusten denez, ugazaben arteko harremanak oso hertsia* dira. Nolakoak, berriz, langileenak eta herritar guztienak?

Garaile irteteko gogoia badugu, guk ere berdin jokatu behar dugu. Gure bide bakarra, denon elkartasuna da.

ARATZ

Neure lantokitik

HEZKUNTZA DOHAINIK

Algortako ikastolari ukatu egin diote Estatuaren diru laguntza.

Baina ez zaitezte larri, algortar euskaltzale sutsuok! Ihazko ikastaroan ikastetxe pribatuarentako Gobernuak 780 milioi pezeta eman bazituen, aurtengoan (1973-1974. ekoan) 5.430 milioi emango ditu, eta «en el curso del año 1976 la enseñanza será gratuita para todos los españoles». Hitz hauk,* «Avanzada» deritzan falangist unibertsitarien aldizkaritik kopiatu ditut, hazileko* aletik.

ESTATU KOLPEAK

«1946 eta 1964 artean 380 Estatu kolpe izan omen dira munduan» (Iraultzaz, J. M. Torrealdai).

EKONOMIAZKO BERRI LABURRAK

Parisen, turismoa beherantz doa. Ihazko uztailean,* aurreko urtean baino % 13,58 turista guttiago egon dira Frantziako hiriburuko hoteletan, eta abuztuan % 11,12 guttiago.

Rusian, 1973. urterako egin zirèn plangintzak ez dira bete. Produkzio industrialak % 7,8 igan behar zuen; baina, uste denez, ez da % 5,8-tik pasatuko.

Bestalde, ihazko gari uzta* 215 milioi toneladakoa izan da: ihazlehenean* baino 37 milioi tonelada gehiago. Berebilen* produkzioa ere handia izan da: ihazko lehen bederatzi hilabeteetan 673.000 berebil fabrikatu dituzte.

ERITZIAK

Bilboko «Hierro» egunkariak, Gabonetako alean, gogorki atakatu omen du «ikastolismoa», ikastolen aldeko giroa salatuz.

Bilboko Unibertsitateko ikasleen biltzarre batetan, «ezkertiar» batek euskaltzaleen kontra berba egin zuen, unibertsitariak euskaldungoari buruzko tesina gehiegi egiten zituztela eta.

Carrero Blanco Lehen Ministruaren hilketa «egintza dorpe» bat izan dela esan du Pariseko «L'Humanité» egunkari komunistak.

EUSKALDUNEN GAIXO BERRIA

Euskaldunon artean sortu berri den epidemia antzeko bat salatzen du Bittor Egurrolak: «batzarritis» delakoa.

Batzarrea gaur, batzarrea bihar, batzarreak goiz eta arrats. Eta, gehienetan, alferrikako burruka ideologiko aspergarrietan murgiltzeko. Eta ekintzak noizko?

Bat nator osorik Bittorrekin. Bai eta J. M. Torrealdairekin ere, «Iraultzaz» liburuan zera idazten duenean:

«Programak ez dio ekintzari indarririk kendu behar. Arrazoin du Joxe Azurmendik, bere haserrean, gure programa zaletasuna, ideologi zaletasuna eta ekintza epelkeria salatzen dituenean».

URTE BELTZA

«Urte beltza, 1974. urtea», dio Donostiako ZERUKO ARGIA aldizkariak. Eta segidan: «Ez dute besterik merezi gure setakeriek,* kaskagogorkeriek, norkeriek eta zatikieriek. Ezerez eta hauts bihurtzen garenean geldituko gara baturik».

Baina honenbeste hodei beltzen artetik, itxaropen izpi bat ageri da: zorionez, asko gara euskaldun kontzientziatuak. Inork honen dudarik badu, galde diezaiela Elgoibarko «jakintsu» erne horiei: Elgoibarren sei bertsolariri entzuteko, pilota lekua euskaldun «fanatikoz» mukurru-raino* bete bazen, pentsa ezazu zenbat garatekeen* Euskal Herri osoan.

Beraz, gora bihotzak, eta guztiok lanera 1974. urte berrian.

CHACAL

Chacal gizaixoa, oraingoan afizionatu bat bezala geratu haiz.

XABIER GEREÑO

diezaiela, **deioela**
dio, **deutso**
diote, **deutsoe**
ezazu, **eizu**



MENCHACA

Estalkiak, Itzalkiak, Ikurriñak, Itxas
resnak, Igeritekoak, Uretako Jan-
tziak, Alokatzeko Itzalkiak.

Zuzenbideak: Posta, 700-Urrutizkin, 245574-Telegrafoa, MENURI
Muelle de Uribitarte, 15 BILBO - 1

Gure Munduko Albisteak

III. Euskal Kultur Saioak Bergaran

«Amigos del País» elkarteko Irigoien patronatuaren laguntzaileek eraturik, ihazko abenduaren 11tik 19rarte, Euskal Kultur Saio interesgarri batzuk* egon dira Bergaran Maestria eskolan.

Hizlariak eta gaiak hauk izan ziren:

Abenduak 11: Gizona eta kultura, A. Artamendik emana.

Abenduak 12: **Nafarroa, lau urtarok*** filmea, Irala zinetokian.

Abenduak 14: **Euskara**, aita Luis Villasanteren ardura-pean.

Abenduak 18: **Pintura-irudigintzen euskal eskola**, J. M. Larramendik egina.

Abenduak 19: **Bergara inguruari buruzko gizarte ekonomiaz**, R. Gorostidi eta I. Larrañagaren kargupean.

1973.eko Andima Ibiñagabeitia Saria

Venezuelatik Euskera Lagunen Elkartekoek (E.L.E.) jakin erazi digutenez, Caracasko Euskal Etxean, abenduaren 7an, IV. Andima Ibiñagabeitia Sariaren irabazlea agertu zen. Egun horrexetan Ixaak Lopez Mendizabal jaun agurgarriari omenaldi bat egin zioten; eta ondoren, bertako ikastolako haurren kantuak entzun ondoren, Literatur Saria Luis Egia Rezola jaunari ematen zitzaioela agertu zuten mahai-koek, beronen **Algebra edo Arau-iztia** lanagatik. Epaimahaikoak Andoni Arozena, Koldo Azurtza, Nere Alberdi (ikastolako andereñoa), Anton Markiegi (salletar irakaslea) eta aita Ugalde (ikastolako irakaslea) izan ziren.

Sariketa honetara, sarituaz gain, beste lau lan presentatuak ziren: **Kosmos 3.a** (itzulpena), Jesus Gaztañagak beste hamabi lan-kiderekin osatua; **Euskeraz egin** (5 liburu), A. Fermin Iraolagoitiarena; **Lutelestia**, Iñigo de Agirrek eta beronen laguntzaileek moldatua; eta **Euskal Erria eta eriotza**, Anes Arrindarena.

Pozik dakuskigu,* zertarako uka, aberritik urrun bizi diren Venezuelako euskaldun eta euskaltzale hauen kultur ekintzok, nahiz eta azken liburu saritu hau —aurrekoak bezala—, daraman izenagatik, segur aski* garbizalekeri kutsukoa izan; eta hori horrela izanik, fruitu exkaxa aterako lioke gure Herriak, berez interesgarri den Andima Ibiñagabeitia Sari horri. Horrela pentsatzera garamatza,* bestetik, orain arte sari horrekin hornituriko obrak oraindik argitaratu gabe egoteak. Birpentsatzekoa lukete berau, guk uste, E.L.E.-koek, sari hori bestela zuzenduz, aspaldion, kasu, euskal elaberria* oso egoera makal batetan baitago. Ez ote litzateke hobe, sekula argitaratuko ez diren obra batzuetarako dirua eskaini beharrean, elaberri sariketa on bat eratzea?

Aburuak* aburu, guk behintzat geurea bota dugu.

Arrasateko ikastolako gaubisitalariak

Abenduaren 23an Arrasateko ikastolan lagun batzuk sartu ziren isilean; eta bertako tiradore eta kaxoi guztiak arakatu* ondoren, haltzari* eta materialetan kalte batzuk eginez, beren firmatxoa utzi zuten, hor han hemenka xanpan botila huts eta turroi zatitxoak, alegia.*

Albiste pitxi hau bidali diguten arrasatetarrek ez dakite nor-tzuk izan ziren; baina egindakoengatik ba dirudi lapur edo ganberroen artean klasifikatu behar genituzkeela gaubisitalariok. Gauzak hobeki jakin arte behintzat.

«Poema del Casco Viejo» argitaratu da

«Amigos del Casco Viejo» taldekoek Esteban Calle Iturrino jaunaren «Poema del Casco Viejo» deritzon obra argitaratu berri dute.

Liburu apain eta dotore honen aleak Bilbo Zaharreko dendariak beren bezeroen* artean banatuko omen dituzte propaganda gisa.*

Poemaren aurrean doña Pilar Careaga de Lequerica andrearen agur gisako aitzinsolas bat dago et beste bat José María de Areilza, Motrikuko konde eta Espainiako enbasadore jaunarena, biak Esteban Calle Iturrino poetaren meritu distiranteak gorai patuz.

Calle Iturrino jauna —Erdal Akademiaren kontra, **vizcaino** gabe,* **vizcaino** hitzaren defendatzaile porrokatua bera—, **Correo Español**ek dioskunez, espainiar sutsu bat da, eta bere sorterrari —hots,* Euskal Herriari— zerbitzu haundi ugari egin dizkio. Ez dugu guk honetan batere dudarik egiten.

Ez dagoke* gaizki gogoratzea, iragaitzaz* bezala edo, orain Calle Iturrinoren erdal poema zabaltzen ari diren Bilbo Zaharreko dendariok, orain urte erdi bat dela, ukatu egin ziotela Euskaltzaindiami bere **Denda Izendegia** liburuxka argitaratzeko babesa, horretarako dirurik ez zutela eta.

Carrero Blanco presidentea ETak hil zuen

Espainiako Gobernuako presidenteari bizia kostatu zitzaion erasoaren* ondoko lehen egunetan eztabaidan egon bazen ere, honez gero erabat* konfirmatua izan da ETA erakundeak* hil zuela espainiar almirantea. Honetaz, bai ETak berak eta bai espainol eta frantses poliziek deklarazio publiko argi batzuk egin dituzte.

Abenduaren 28an Bordele* inguruan egin zèn prentsa bilera ezkutu batetan, ETako lau mutilek, burua maskaraturik, argiro aitortu zieten kazetalariei, berek hil zutela Carrero Blanco jauna. Hori horrela, ba dirudi, atentatu horretan parte hartu zuten etarrak, honez gero, Espainiatik ihes eginak direla.

Bilboko Herri Irratiaren euskal programak

Herabe* eta beldurti, baina azkenean Bilboko Herri Irratiak bere lehen euskal irratsaioak egin dizkigu. Agian,* kontra egindako kritikak ez dira hain alferrekoak gertatu. Agian!

Dena dela, ez gaitezen, otoi, lasterregi alegra. Programma horik ez dira, halafede, **gora bihotzak!** dei daitzkeen horietarikoak, behialako* kutsu nigarti et trixtekoak baizik.

«Euskal enda* —zioen lehengo batetan irratiko hizlariak— baserrietan bakarrik gordetzen da gaur egun. Euskara, zoritxarrez, galduz doa eta kalean gero eta guttiago egiten da. Kanpoko jende asko etorri da gure kalterako... e.a.». Jeremias bera ez zatekeen* alaiago mintzatuko. Hori ez duk irratsaio bat, kontxo, hileta bat baizik. Ea noiz hasten garen gauzak seriozki egiten, eta konpontzen, horrelako adabaki* barregarri eta «nigargarriak» ipini gabe.

Telebista eta euskara

Gabon eta Gabon Zaharretan TVEk teleaio batzuk agerterazi zizkigun, garaiari zegozkion kantekin. Kantuok euskaraz, galegoz, gaztelaniaz eta katalanez agertu zituen. Uste genuenez, Espainiako telebistarentzat euskara eta euskaldunok ez ginen ezer, orain arte egin digun kasu eskasa lekuko*; baina, dirudienez, oker geunden. Oraingoan telebistak kontuan hartu gaitu bigarren mailako hiritarrok ere. Alleluia, ba*!

Kontua da, ordea, horrelako saio horrek, gaztelau pribilejiatuek gainera, euskaldun, galego eta katalan izeneko gizaki batzuk ere ba daudela erakutsi duela; baina, orduan, zergatik ez digute beste horrenbeste eskaintzen, bigarren kanalez edo, urteko beste 363 egunetan ere? Ala



euskaldunok bi egunotan bakarrik ote gara euskaldun? Ala dena paternalismo merke eta ustel bat-tzat hartu behar dugu?

I. Sebero Altube idatz sariketa Arrasaten

Arrasateko seme ospetsu horren izenean, DANOK kultur taldeak idatz sariketa bat antolatu du aurten lehen aldiz. Idazlanetarako lehiaketa hau euskaraz izanen da, eta nahi duten pertsona guztiek har dezakete parte bertan.

Sariketak hiru maila ukanen* ditu idazleen urteen arauera*: **Lehen maila**, 10 urteak arte; gaia **Arrasate**, luzera mugagabea eta eskuz idatzita. **Bigarren maila**, 10 urteetatik 16 urteak arte; gaia **Arrasateko gazteria**, luzera 2-4 horrialde, alde batetik eta makinaz eginak. **Hirugarren maila**, 16 urteetatik aurrera, gaia **Arrasate: kultura, gizartea, langileria, ikastola...**, 3-6 horrialde, alde batetik eta makinaz eskribatuak.

Idazlanak presentatzeko epea otsailaren* 16an amaituko da. Lanak, lema batez firmaturik, ondoan azal* heretsi batetan, egilearen izen-deiturak eta bizilekua eramanen ditu, urteak, eta lema erabilia.

Sariak hiru izanen dira maila bakoitzerako, lehen maila bietan erregalutan* emanak; eta hirugarrenean, 3.000 pezetako sari bat eta mila pezetako bi egonen dira.

Idazlanak hona bidali behar dira: DANOK, Resusta, 33. Arrasate, Gipuzkoa.

Esnearen burruka

Baserritarrak haserre daude. Zentralek esneagatik ordaintzen dieten prezioa oso ttikia da, eta pentsuak, berriz, gero eta gorago doaz. Ganaduak lan haundia behar du egunero, gobernatzeko; eta haietatik ateratzen dena, ez da inola ere ematen duten nekearen arauerakoa.*

Hirietan botilaturik saltzen diguten esnea (esnea edo) ia* bi bider gehiago pagatu behar izaten dugu, baserritarrek beragatik kobratu dutena baino. Sarritan, gainera, esnefabrikek berek pentsua eta pulpa saltzen diete baserritarrei; eta bitartekoek, nahi dituzten zerrikeria guztiak egiten dizkie nekazari gaixoei. Pentsuaren prezioa laster altxatuko dela dakitenean, esate baterako, ez diete saldu nahi, gordeta eduki arren, pentsurik ez dutela esanez, e.a.

Baserritar asko, fabrikari pentsuak pagatu ondoren, askotan parean gelditzen dira, ezer irabazi gabe, esneagatik galdu ere egiten ez dutenean. Ez da, beraz, harrigarri protesta egitea, baserritarrek honetan ere arrazoi osoa dute eta.

Langileriaren alde egitea modan dagoen garai honetan, ba dirudi, gure Herriko azpilangileria osatzen duen taldea —nekazalga, alegia— ahantzia eta baztertu xamar dugula.

Frantses poliziaren neurriak ETako kontra

Espainiako Gobernuak protestazko ohar bat bidali dio Frantziakoari, beronek ETako plastikolariei Ipar Euskal Herrian bizitzeko eta gordetzeko ematen omen dizkien erraztasunengatik. Protesta hori dela eta, Pompidouren Gobernuaren aginduz, frantses poliziak sei etar bidali ditu Frantziaren iparraldera. Euskal Herritik urrun. Eramandako horien izenak hauk* dira:

Joan Jose Etxabe Orbegozo «Haundi», Arrasateko semea, 37 urtetakoa, ezkondua eta 3 seme-alabaren aita. Xabier Zumalde Romero «Ahuntza», Zornotzan (Bizkaian) jaioa, 35 urtetakoa, ezkondua eta bi haurren aita. Jose Mari Blasko Bereziartua «Landrú», Eibarkoa, 25 urtetakoa, ezkongabea. Jose Mikel Lujua Gorostiola «Mikel», Bilboko, 27 urtetakoa, ezkondua. Pedro Akizu Leizarreta «Zigor», 26 urtetakoa, eta Ramon Urrutia Galarraga «Markos», ezkondua, 33 urtetakoa. Guztiok, Frantziatik kanpora bidaltzea nahi ez badute, eramanak izan diren tokian egunero poliziagana presentatu behar dute burua.

Frantziar Gobernuaren erabaki horien aurka, hamar gazte ETako gose greba bat egiten hasi dira betiko tokian, hots,* Baionako katedralean.

Espainiako agintarien aldetik sei etar horien deportazioa ez da hain begi onez ikusi, ez baitirudi inondikan ere, horiek Carrero Blanco jaunaren hiltzean parte hartu zutenik. Haietako batzuk, Etxabe eta Urrutia, elbarrituak dira, eta beste batzuk, berriz, «Ahuntza», «Landrú» eta Akizu, kasu, ez daude aspaldian, atentatua egin duen ETA V. Asanbladaren barrenean.

Azken orduko berriek diotenez, Jose Etxabe eta Pedro Akizu ez dira poliziagana agertu, eta, horregatik, ihes eginak direla uste da. Frantses poliziak Bidasoa hibaia bazerretatik eta Nafarroako mugaren mendietan are* goardia gehiago ezarri ditu, bada ez bada ere.

ARMENDARITZ

daude, dagoz	dizkio, deutsoz
dezakete, daikete	gaduzka (gauzka), gaukaz
die, deutse	genezake, geinke
diete, deutsee	geunden, gengozan
digu, deusku	lioike, leuskio
digute, deuskue	zieten, eutseen
dio, deutso	zioen, inoan , esaten zuen
dizkie, deutsez	zioten, eutsoen
dizkiete, deutseez	zitzaien, jakon
dizkigu, deuskuz	zizkigun, euskuzan

Ezker Berriaren hastapenak (1)

«Neomarxistak», «ezker berriak» eta horrelakoak ez dira talde jakinen bat. Esaterako, ezker berriak trotskistak direla esan dit oraintxe batek. Hala ere, kontzeptu horik* jeneralean ulertzen diren bezala ulertzekotan, nekez esan liteke horrelakorik. Beharbada, trotskisten batzuk «ezker berrien» artean aipa litezke, hori bai. Eta, du-darik gabe, «ezker berrien» sorkundean trotskismoak zirikusirik izan du. Berdin maoismoak ere. Baina, dagoeneko,* neomarxistak (zaila da hauen definizio zehatzik ematea) nonnahi aurki daitezke: Alderdi Komunistetan ere bai.

«Neomarxista» nahiz «ezker berri», kontzeptu guztiz desegokiak dira: oso zaila gertatzen da, zein den halakoa seinatzea. Jeneralean, izen horiekin **inspirazio** bat adierazi nahi izaten da. Inspirazio marxista ireki, dialektiko eta kritikiko radikal bat. Baina kritikaren radikaltasuna eta marxismoaren irekitasuna modu eta neurri askotakoak izan daitezkeenez, klase askotako neomarxistak aurkitzen dira.

Lehenengo Mundu Gerraren ondorenean (eta bigarrenaren ondorenean berdintsu) ez zegoen demokrazia kritikatzetik: antidemokratikotzat hartuko zintuzketen. Marxismoa demokraziaren kritika denez gero, marxista izatea izugarritzko zatarkeria zen mendebaldean;* eta zerbait zirèn mendebaldeko zientifikoak, marxismoa errebatitzera obligaturik sentitzen ziren. Jaungoikoak eta deabruak bakarrik dakite, berrogeitamar urte honetan marxismoa zenbat alde eta moldetan errebatitu den. Beti «zientifikoki», noski, mendebaldeko zientifiko bati dago-kion moduan. Zientifikoentzat marxismoa ez zen seriotan hartzeko gauzarik. Langile desesperatu batzuk* marxista izatea, tira, konpreni zitekeen. Baina intelektual prestu bat? Utikan* halakorik!

Bestetik, egia da, ekialdean* kultibatzen ari zirèn «marxismoak», erlijio edo mistika edo metafisikaren baten antz gehiago zuela, zientziarena baino: mendebaldeko intelektual eskeptiko, arrazionalista, hotzari apenas graziarik egin ziezaiokeen halako erlijio berri batek. Eta egia da, halaber,* marxismo hura* «la voz de su amo» bihurturik zegoela, lehenago esaten nuen moduan: bere buruaren autonomia galdu nahi ez duen mendebaldeko intelektual demokratik ezin onhar zezakeen halako dotrina ofizialik (eta ofizialtasunaren dotrina, gainera!).

Baina, mendebaldean bertan ere, izpiritu kritikoa kamustuta* zegoen, ia* hilda. Ez zen kritika marxistarik onhartzten: edozer gauza esan zitekeen, «askatasun» haundiak zeuden, baina, hori bai, demokrazien santutasuna ukitu gabe. Bestela, B. Russell bat izanda ere, aisa* buka zitekeen, gartzelan lo eginez. Eta problema hau eta hori eta bestea salatzen bazenituen, «zientifikoek» berehalaxe demostratuko zizuketuen horien guztien «normaltasuna»: gauzak halaxe izatea baino beste erremediorik ez dago mundu honetan. Eta soluzio hau eta hori eskatzen baze-

nuen, ameslari inozo* bat eta iluso bat zinela esango zizuketuen, konprentsiboak baziren. Bestela, okerragoak.

(Oraingo egoerak ordukoarekin izugarritzko antza dardukan moduan, orain ere berdintsu pasatzen da).

Ba zeuden, etsitu* gabe tradizio kritikoari jarraitzen zitzaizkion batzuk ere; eta inolaz ere ez ziren denak marxistak. (Beti aipatzen den halako bat, hain zuzen, Russell da). Ilustraziotik datozen joera enpiristek edo posibistek, ez dute beren desarroiloa inoiz zeharo gelditu. Baina ba zeuden, dogmakerietan erori* gabe, tradizio kritikoari jarraitzen zitzaizkion marxistak ere; orain «neomarxistak» edo neomarxismoaren gurasoak deitzen* ditugunak.

Bi zereginekin kausitzen* ziren hauk: marxismoa Ilustrazioaren tradizio bizian (orain guztiz motelduan) sar,* eta marxismo kritikiko dialektikoa desarroila.

1. XIXgarren mendearen azken aldera, marxismoa Ilustrazioaren ondareko* beste joeretatik aparte gelditu zen, bere baitan aislatuta,* Elizaren kredo batekin bezala bere sistemarekin nahikotuta. Aski* zuen bere burua. Esaterako, psikologiak eta soziologiak egiten zituztèn aurkipenak, ez zituen haintzakotzat* hartu eta probetxatu nahi. Neomarxistek, Marxen irakaspenei jarraitu arren, ez die, «marxista» ez diren zientziei eta zientzien emaitzei zaputz* egingo. Neomarxista bati ez zaio burutik pasatuko, Freud kondenatzea (ortodoksoek egin izan duten moduan). Beraz, marxista irekiak izango dira. Marxen zenbait uste abandonatzeko edo zuzentzeko ere irekiak. Marxismoa atzera* Ilustrazioaren tradizio barrura sartuko dute, eta tradizio honen faktore edo osagai bat bezala —beste askoren artean— erabiliko dute. Ez dago marxismoaren eskusibismorik. Ba dakite, gainean gaduzkan lurra Ilustrazioarena dela, eta lurralde hau ureztatzen* eta hezitzen* duten erreka askotarik bat, Marx dela.

2. Esaten den bezala, marxismoak —marxismo ofizial leninistak batik* bat— dialektiko izateari utzi dio. Beraz, neomarxisten bigarren eginkizuna dialektika berrirabaztea izanen da. Modu guztiz diferentetan egingo da hori: esaterako, Horkheimer-ek, Lukács-ek eta eguntan Althusser-ek hiru modu oso diferentetan egin dizute hori. Baina denak ikusten ditugu, marxismoarentzat dialektika berrirabazten saiaturik.

JOXE AZURMENDI

die, deutse	zeuden, egozen
dio, deutso	zezakeen, eikean
dit, deust	ziezaiokeen, eiskion
dizute, deutsue	zintuzketen, zindukeezan
litezke, leitekez	zitekeen, eitekean
zaio, jako	zitzaizkion, jakozan
zenituen, zenduzan	zizuketuen, euskizuen

AIALA GUREA

Euskal historia ez dugu, noski, ezagunegia. Beste kondaira bat irakatsi ziguten guri eskoletan. Eta, egia esan, jakin beharko genuke zerbait gehiagorik, alazankoa*! Urteurren* eta mendemuga batzuk ez dira txarrak gertatzen, zerbait ikasiz joan gaitezten.

Egun hauetan gogorarazi zaigunez, orain ospatzen da Aialako Foruaren Mendeurrena,* VI. Mendeurrena, alegia* (1373-1973). Euskaldun gehienok ez dakikegu* segur aski zer den Aiala, ez non dagoen, ez eta zer izan zen. Eta ba dirudi, erdal historigileek esango digutela oraingoan ere. Izanen da, beraz, zorte onik.

Mendeurren hori ospatzeko sariketa bat eratu da, Aialako Foruaren ingurumarian* egin litezkeen lanentzat. Poztekoak dira, benetan, Arabako Diputazioak agertu dituen ardura* eta jakin nahia. Baina hona gure kezka: Aialako Foru hark aurkituko ote du, gero, euskal Lege Zaharrak merezi lukeen euskal historigilerik? Arabar kezkatu batzuek —eta onenean denok— ukan dezakegu erantzuna. Santo Domingoko Trujillo hark garbitu zigun Jesus de Galindez bizi baltz!

Jesus de Galindez hau aialarra zen, eta jadanik* Errepublika garaian —eta oso gazte zelarik— Aialako Foruaren aztertzaile bizkorra. Huraxe behar genuen orain geure artean, premiakoa den azterketa egin zezan. Baina hura Trujillok itsasuntzi bateko laberen batera, sutara, bota zuenez, beste norbaitek (nondik eta zertarako?) eginen du lana.

Oraingoan, Jesus beraren lana (Buenos Airesko «Ekin»ek argitara emana) eta Uriarterena aparte, ez dugu azterlan sobera,* Aialako bidezko zaharrak ezagutzeko.

Bizkaian Durangoaldeak edo Enkartzioek —bakoitzak bere gisara*— ukan zuten nortasun berezia bezalatsu, Aialako Lurraldea ere pertsonalitate handikoa izan da Araban. Beregaintasunik zabalena ukan zuen Aialak. Aiala hau Araba eta Bizkaia euskal herrialdeen artean kokatzen* da, 1463.etik honakoan Arabaren parte dela. Arabako ipar-mendebaldera dago: Orozko du ekialdean,* Artzeniega mendebaldean,* Enkartzioak eta Audio iparraldetik. Amurrio da Lurraldearen hiriburua, Aiala, Lezama eta Okendo ere barnean direla.

Aialako Lurraldean euskaraz hitz egin da oraintsu arte, bizkaieraz hain zuzen. Mende bat pasatuxea da, beharbada, aialatarrek euskara galdu zutela. Ez gehiagorik. Euskal historian toki jakingarri bat dagokio Aialako Lurraldeari, bere politika instituzioen nortasun biziagatik.

Aialak bere jatorrizko ohitura eta usuarioak zituen, eta haien arabera* antolatuta zituen gobernailu* publikoak ere. Hango Foruak dioenez, Aiala Jaurerri* bat bezala da —«Bizkaikoa bezala» esaten da—. Erregek ba du aginterik Aialako Jaunagan, baina Jaun honek Jaurerri honetatik kanpora eduki ditzakeen lurretan bakarrik; ez, ordea, Aialako Lurralde barruan: Aialako Jaun bezala ez dago Erregeren menpean.

Zaraoben (Arrespalditzan) biltzen ziren Aialako Batzarre Nagusiak, eta hauengan zegoen Jaurerriko goiboterea.* Beronek hautatzen zituen eskualdeko bost *alkateak*, Jaunarekin eta ibarjaunarekin batean hauzi* boterea ukanen zutenak. Baina, justizi betekizun honen parean, benetako botere eragilea* zuten agintariok. Aialako Jaunaren egiteko nagusia legeen frogantza* zen, legeen berronespena.* Ba dirudi, Batzarre Nagusiak oso irekiak zirela: Kontseilari, agintari, aitorseme* eta hauzok hartzen zuten parte Zaraobeko bileretan. Eta XV. mendeaz geroztik, San Migel egunez biltzen ziren Batzarrea zen legegailu.* lege-egilea.

Orain Mendeurrena ospatzen diogun Forua, 1373.ekoa dugu; eta Fernan Perez Aialakok —Lurraldeko Jauna zela— emandakoa da. Fernan I. horrek, Lurraldearen usuario eta ohituren agergerri diren artikulu gehienen ondoan, Gaztelatik hartuta, zenbait puntu jartzen du Foru horretan, Lurraldeko Jaunaren eskubideak —jatorrizko usuario haien kontra edo— indartu nahiz. Hona, ba, gure historiako beste une jakingarri bat. Irakur beza nahi duenak Galindezen liburuttoa (*La Tierra de Ayala y su Fuero*, 1957) edo B. Estornes Lasaren laburpena.

Foru horrek bere barnean dituen kontraesan* nabarmenengatik oso interesgarria da guztiontzat, gure kondairaren konstanteetako bat agertzen baitu: hots,* gure jatorrizko usuario-legeari, nobleziaren

bitartez, ezarri nahi izan zaion jokabide arrotza. Orain, Mendeurren hau tarteko dela, berriz ere ikusi beharko ditugu istudio «ederrak»; saiatuko dira, berriro ere, gure instituzioen iturriak herbestean biltzen. Berriz ere arrisku beretan izanen gara: geure Lege Zaharren ohiturazko oinharri jatorrak ahanzteko (ohituratasuna da gure legetan lehenengo* jatorburua, eta ez inongo Jaun nahiz Erregeren borondatea) eta bizi izan genuenaren orijinaltasuna ukatzeko arriskutan. Biba gu, ezarri nahiko diguten itsumenarekin!

Bestek bestelakorik esan aurretik, gogora dezagun hauxe: Aialako Forua Lurraldearen legea da, eta ez Jaun batek Udala* bati ematen zion «Hiritasunezko Ageria*» (*Carta Puebla*). Puntu hau —beste askotan bezala— oinharritzko zerbait da, Lurraldearen usuario eta ohiturak onhartzea baita. Hori bai, Aialako Jauna ez zen inozoa;* eta, agintadun guztien antzera, hura ere saiatu zen, bereari eusten eta aginte modu berriak Lurraldeari irabazten edo lapurtzen. Baina horixe izan da beti gizarteko makurkeria: herriaren gain, edo kontra, eskubideak irabaztea; eta ez gara harrituko, gure historian ere horrelakorik idoroten* bada.

Orain aipatzen dugun 1373.eko Aialako Foruaren historiak, pentsakizun franko ba du. Pentsaketa lan horretan lagun gintzatela eskatuko nieke euskal historigileei. Gure Lege Zahar hori eskuartearen dugula, zera jakin nahi dugu oroz* lehenik: zer leku du Foru horrek Euskal Herri osoaren Historian, zernolako harremanak ditu (berdintasunak eta aldeak*) gainerako euskal Lege Zaharrekin? Zertan dazta* Aialako instituzioen euskal nortasuna?

Eta gero oso atsegin izan liteke bestea ere: zer indar izan du herbesteko eraginak instituzio horiengan?

Gure kondairaren une honetan, ene ustez, jatorrago da orijinaltasuna ongi ezagutzea; eta Aiala ez dugu ezagutuko, Gaztelatik zer eman zioten esanez, Aialako Lurraldeak berak zer berririk sortu zion agertuz baizik. Eta hortxe dago gakoa, 1373.ekoa eta 1973.ekoa.

ANTSO AMAIUR

beza, bei	zaigu, jaku
dezagun, daigun	zaio, jako
dezakegu, daikegu	zezan, elan
digute, deuskue	zigun, euskun
diogu, deutsagu	ziguten, euskuen
ditzake, daikez	zion, eutson
nieke, neuskioe	zioten, eutsoen



ELAIS AIALA
YURRE

DANTZATOKI GOXOA Igaztez ta jai egunez: 6 tatik 10.ra
Astegunez: 7. tatik 10.ra.

SOINU KOADROFONIKOA

KAFETEGI **AMA LUR** RESTAURANTA

JUGOSLAVIAKO HIZKUNTZA ARAZOA

Jugoslavia, sei errepublikak osatzen duten nazio federatu bat da. Hogei milioi bizilagun ditu. Haien egoera, hizkuntza arloan, oso jaingarria izan dakiguke.

Serbokroatak hamabost milioi dira, slovenoak milioi eta seiehun mila, makedoniarrak milioi eta berrehun mila guti gorabehera, albaniarrek milioi eta hirurehun mila, hungariarrak laurehun eta hirurogei mila, turkoak ehun eta laurogei mila. Gainera, beste ethnia ttiki zenbat dira: slovakoak, ziganoak, bulgaroak, errumanoak, alemanak eta italianoak.

Jugoslaviako administrazio erakundea^{*} sei ethnialk osatzen dute: Serbiak, Kroaziak, Sloveniak, Makedoniak, Montenegrok eta Bosnia-Herzegovinak. Serbiak, bere lurralde barrenean, bi herri autonomiaz bizi direnak ba ditu: Voivodino eta Kosovo.

Horrela, bada, Jugoslavian zaila litzateke bakean bizitzea, hizkuntza arazoetan ethnialk bakoitza askatasun osoaren jabe ez balitz. Baina goazen aurrera.

Jugoslavian, parlamentu federatua, diputatu bakoitza bere ethnialk hizkuntzan mintzatzen da; gero beste hizkuntzetara itzultzen da hark esandakoa. Federazioko sei errepubliketako parlamentuetan ere askatasun osoa ematen zaie ethnialk ttikien hizkuntzan mintzatu nahi dutenei.

Baina eguneroko bizitzan, elkar harremanetan eta bata bestearekin komunikatzeko bideetan, ez dira gauzak berdin gertatzen: serbokroata garaile irteten da bere gehiengoagatik,^{*} beste ethnialk kezkatzen jarrit. Hori dela eta, Sloveniako esperantistek inkesta bat egin dute beren Errepublikan. Hona hemen zer dioen inkestaren ondoko deklarazioak:

«Herriak azaldu dituen eritziak kontutan harturik, guk hauxe deklaratzen dugu:

Jugoslaviako Federazioan, Estatuaren eta ethnialk arteko eskubi-deek berdin errespetatuak izan behar lukete, bai politikan eta bai hizkuntza arloan ere. Ez dugu onhartzeko, atzerriko hizkuntza batek beste bat azpiratzea, nahiz gure herrian nahiz beste edozein herrian. Horregatik ez dugu onhartzeko, gure hizkuntzak beste herri eta ethnialk atako hizkuntzarik menpera dezan. Errespetatuak izan daitezela nazio guztietako hizkuntzak, pertsonaren izakera osatzen eta agertzen duen gauza bat bezala. Herri eta nazioen artean ez dadila jauntxokeriarik izan edozein naziotako hizkuntzarekiko, zeren^{*} jauntxokeria horietatik sortzen baitira gizarteko desberdintasunak, bai kulturaren eta bai ekonomi eta politika arazoetan.

Guk geure eritzia ematen dugu:

Hizkuntza problemak ethnialk guztien artean erabaki behar dira, oinharri berdinen arabera.^{*} Oinharri horiek berberok balio dute errepubliketako eta Estatu federatuko ethnialk desberdinen harremanetarako ere.

Guk hau adierazten dugu:

Gaur arteko joera guztiak, hizkuntzaren salbaziorako erabili direnak, ez dira beti izan behar bezalakoak. Askotan gertatu da, ez direla hain probetxagarriak izan. Aitzitik,^{*} lehen baino gehiago nahasi dute arazoa, gorago aipatu ditugun oinharriak bete ez direlako. Herri eta nazio arteko hizkuntza problemak bide zuzenean jartzea baitezpadakoa^{*} da.

Horregatik guk hau proposatzen dugu:

— Beste nazio eta ethnialk arteko harremanetan, nor bere hizkuntza uzteko prest egon dadila.

— Izan dadila esperantoa denontzako bigarren hizkuntza,^{*} nazio artean bera enplegatuz eta honela elkarrenganako bide luze bat zabalduz. Bera baita atzerrikoa baizen gure herrikoa.

Proposamendu honi baietza eman ziotenen proportzioa hau izan zen: udaletako^{*} ordezkarietarik % 100, goi mailako irakasleetarik

% 83, lehen mailako irakasleetarik % 92, gazteen erakundeetarik % 82.

Dokumentu honek harrera ona ukan^{*} zuela ikusirik, Sloveniako diputatuek Errepublikako Biltzarrean aurkeztu^{*} zuten, bertan ontzat hartu eta aurrerabidean jarri. Gero Sloveniako Gobernuak Jugoslaviako Errepublika Federatua aurkeztu zion. Biltzarre Nagusian aztertua izan zedin. Eta, azkenik, dokumentua zehatz-mehatz eztabaidatu ondoren, hain garrantzi handiko arazoa Jugoslaviako sei Errepublika eta bi Herri autonomoen artean erabaki behar dela deliberatu^{*} da.

Jugoslavia mundu ttiki bat da, hizkuntza desberdinik ugari dituelako. Han hartzen den erabakiak garrantzi handia ukanen du, ethnialk hizkuntza asko duten beste nazioei bidea argitzeko.

NIKOLAS APAOLAZA

dakiguke, **daitekigu**
dezan, **daian**
zaie, **jake**
zion, **eutson**
zioten, **eutsoen**



Emakume, gizonezko eta umeen jantziak

**Oihal, izare eta etxean behar diren
gainerakoak**

**Bai emakume eta bai gizonezkoentzako
jantzi aukeratuenak, azken
modara eginak**

HURI ZAHARRA

“Casco Viejo”

BILBO

SARRIOA (18)

Eneko bere betidaniko osaba Martinekin, Jaka aldera joan da eskiatzera. Egun ederrak eman ditu Oskako lurretan. Bertan euskara egiten zan, orain mende gutti direla; eta bertako jendearen aitonak* euskaldunak zirela oraindik argiro ikus daiteke leku askotako izenetan. Elurretan ibiltzeaz aspertu direnean, osaba-lobak Pirinioetako basoetatik abiatu dira, photomakina eskuan, alderdi hareetako argazki batzuk egiteko. Bai eta egin ere. Toki zoragarriak benetan Jaka aldekoak.



Halako batetan, mendi arteko bidexka batetik joizela, Enekok goiko harkaitzetan ahuntz moduko animalia eder lirain batzuk ikusi ditu saltoka.

—Zertzuk dira hareek, osaba? —dinotso beroni.

—Sarrionak. Pirinioetan oraindik ugari ibiltzen dira.

—Eta zelan* bizi daitezke hemen, ba,* elur artean?

—Txotxo, ez pentsa mendi Pirinioak beti honela estalirik dagozenik. Udan ez dago elurrik, tontorretan ez bada. Orduan sarrionak orain baino gorago igaten dira mendietan; baina ba dauke bertan zer jan: belarrak, horrihostoak, zuhaitzen ernamuinak...

—Baina orain zer jaten dabe, elurra baino ez dago eta?

—Orain ere zeredozer topatzen dabe nonbait, elurra gorabehera*: goroldioak,* likenak, abartxo berdeak, zuhaitz azalak, e.a.

—Eta horreekin nahikoa dabe bizitzeko?

—Bai, irauteko lain.* Sarrion oso animalia gogorra da eta mendi harkaitzetan bizitzeko egokia. Ba dau ile* gogor eta ugaria neguan, hotzik ez pasatzeko; udan, berriz, ile eskasagoa dau, beroagatik ez dau behar eta. Saltoka ibiltzen da haitz artean; eta taldeka dabilzanean, goiko horreek legez,* beti dabe gidari bat, gizonik edo piztia beldurgarririk inguratzen jakenean, ziztukada* bat botatzen dauana, beste guztiei handik ihes egiteko abisua emanez.

—Hemendik ez dira ongi ikusten. Buruan adarrak al dabe, ahuntzen modura?

—Bai! Hasieran zuzen zuzenak, eta puntan atzera begira. Arraren adarrak, batzuetan, 25 zentimetrotaraino ere heli daitezke.

—Eta kume asko egiten ditue?

—Ez! Urtean behin, maiatz inguruan, emeak kumetxo bat ekartzen dau mundura, guttiagotan bi ere bai.

—Eta zelan dauka sarrionak izena erdaraz?

—Espainolez **gamuza** esaten jako, eta frantsesez **chamois** edo **isard**. Zientzizena, berriz, **Rupicapra rupicapra** da.

TRAUKO

dabe, **dute**
 dagoz, **daude**
 dau, **du**
 dauke, **dadukate** (daukate)
 ditue, **dituzte**
 jake, **zaie**
 jako, **zaio**
 joiazen, **zihoazen**

Albistearen miztoa

«Capra Hispanica» deritzan ahuntza salbaturik omen da. Halaxé esan digute Tortosatik. Pozteko da, noski, abereok hain poliki salbatu ahal izatea. Izadia* —hain errespetagarria— aberatsago izanen da orain. Holaxe holaxe, guk geuk ere ez dugu deus* galduko. Ahuntzaren etorkizuna segurta* dadinean, beharbada gu ere salbatuko gara.

*
* *

Alvaro Cunqueiro, «omnívoro y gallego por la gracia de Dios», Galiziako idazle ezaguna da. Galiziar idazleari, nonbait, halako eztenkada batzuk eman* ohi dizkiote, idazle konprometatua* ez delako edo, irudimen hutsezko luma darabilala salatuz. Eta horra zer zuen esateko, salakuntza horretaz: «Bai, ba,* halaxe da. Nik ere ez dut uste, konprometatu gaberik, idazle izan litekeenik. Mundu hoñetan izan ba diren idazle guztiak dira konprometatua. Adibidez, ni neu norabide* jakin batetik konprometatua nago, hau da, neure hizkuntza galegoaren bidetik hitzemana naiz. Galegoz idaztea —besterik gabe ere— konpromiso* bat da. Ez dut dudarik horretaz. Izan ere, aukera* horrek mugatu egiten du idazlearen zabalkuntza, ospea, eta kobraketa...» Ene, bada, Cunqueirok esaten dituenak!

*
* *

Salamancako Eliz Unibertsitateko Erretoreak esan duenez, «Eliza espainolak, mendez mende, hutsune intelektual larri bat jasaten* du». Eta ez omen da hori Erretorearen eritzi narrugorria, Morcillo zenak esana baizik, hau da, Guerra Campos-en aita* pontekoarena baino. Ba daki-zu: egiak, gutien uste dezakezun iturrietatik jaso daitezke. Beti ere, hobe da hola. Ea, ba,* sendagarririk aurkitzen zaion eritasun luze horri.

*
* *

Soldadutzaren kontzientzi kontraesaleek (kontzientzi objetatzaileek esan nahi dut) ez dute bizitza samurrik.* Beren bertute onak gorabehera,* Cuencako apezpikuak, Guerra Campos berak, mugatu dizkie eskubideak: «Kontzientzi objetatzaile horiek ez dute anaitasunaren eta otzantasunaren* monopoliorik, inondik ere». Pozik galdetuko nioke Donostiako Setien jaunari honetaz zerbait.

*
* *

Kataluniako historigileen Eskola Berria sortu eta bizkortu zuen hirukotea itzali* da. Orain hamar urte edo

joan zen Jaime Vicens Vives (historigile gazte askoren maisu paregabea), abuztuan hil zen Santiago Sobrequès, eta hil berria da orain Joan Reglà i Campistol. Hauekin batean Ferran Soldevila eta Ramon d'Abadal gogoratzen baldin baditugu, berehala ohar gaitezke zernolako galera den Kataluniarentzat Joan Reglà-ren heriotzea. Soldevila eta Adabal izan dira tradizio zaharretik zetozenak (Menéndez Pidal bati aurpegi emanez, esate baterako). Vicens/Sobrequès/Reglà hirukoteak ireki ditu metodologia berrien erregebideak.* Herri handi horren onerako, jakitun horiek ba dituzte, dagoeneko,* jarraitzaile trebeak.

JOANES GOIA

dezakezu, **daikezu**

digute, **deuskue**

dizkie, **deutsez**

dizkiote, **deutsoez**

nioke, **neuskio**

zaio, **jako**

Froga ezazu zuk zeuk
BYASS 96
ona dela izenez eta izanez



GONZALEZ BYASS
JEREZ • XÉRÈS • SHERRY



Neska argi bakarra

Mutil zaharrak: —Sinets nazak, Txomin! Neska guztiak tontoak dituk. Neure bizitza osoan bat bakarrik topatu ziat argia dena.

Txominek: —Eta zergatik ez hintzen harekin ezkondu, ba*?

Besteak: —Ez pentsa, txo! Eskatu egin nioan horixe ere, baina ezetz esan zidaan.

Oso gaizki egon behar!

Paulo bere adiskide Luis bisitatzera doa ospitalera.

—Hara! Hemen ez haiz kexatuko. Hemengo erizaina,* guttienez, oso neska politta duk.

—Bai ote? Ba al* dakik, ez naizela konturatu horretaz ere?

—Ai ene! Ez nian uste horren gaizki hengokeenik, mutil!

Gerrako kontua

Bizarginak bezeroari:* —Aizu,* inoiz moztu ote dizut lehenago bizarra, jauna?

—Ez! Trankil! Aurpegiko orbainok* gerra denborako zaurien ondorioak dira.

Hogei milioi galduak

Nekane oso aberatsa da, eta Mikel, berriz, ezin po-breagoa. Neskak mutila estimatu, bai, egiten du, baina ez besterik. Mikelek, bestetik, ba daki hori; eta gau batez, goxo goxo jarririk, neskari ba diotso:

—Hara, Nekane! Hi oso aberatsa haiz, ez dea*?

—Bai, Mikel. Guttienez hogei milioi zitiat.

—Bai? Eta... nirekin ezkondu nahi dun?

—Oi, Mikel! Ezin zezakeat, benetan. Estimatu egiten haut, baina ezkontzeko beste*...

—Ez ardurarik* ukan, Nekane. Nik ba niekinan, ezetz erantzunē? hidala.

—Eta orduan zergatik galdetu didak, ba?

—A! Jakin nahi ninan, zer sentitzen duen gizon batek, hogei milioi galtzen dituenēan.


didak, deustak
dituk, dira
dizut, deustut
duk, da
hidan, heustan
nazak, naik
nian, nuen (neban)

ninan, nuen (neban)
niekinan, nekien
nioan, nion (neustan)
zezakeat, dezaket (daiket)
ziat, dut
zidaan, zidan (eustan)
zitiat, ditut



Fatxi

GURUTZEGRAMA (32)



Ezker aldetik eskuin aldera: 1. Zaldiaren emea.—2. Entzun ezin duena.—3. Izenorde posesiboa (artikuluarekin).—4. Kontsonantea. Haiztoa. Kontsonantea.—Eroa (alderantziz). Bokala. Arto opila.—6. Ukan aditzaren forma. Uxatu, ohildu (infinitiboan eta alderantziz).—7. Bokala. Esaten duenez (alderantziz). Bokala.—8. Zura jaten duen mamorroa (alderantziz eta artikuluarekin).—9. Lekeition itsasoratzen den hibaia (alderantziz).—10. Euskal deitura (alderantziz).

Goitik behera: 1. Alaitasuna (artikuluarekin).—2. Emea ez dena. Bokala.—3. Egunaren hastapena. Kontsonantea. 4. Kontsonantea. Zaharra ez dena (artikuluarekin). Bostgarren bokala.—5. Hogeitalau orduko denbora. Gorputza garbitzeko era (alderantziz).—6. Kolorea (artikuluarekin). Hegaztia, oiloaren gisakoa.—7. Hotza ez dena (alderantziz). Frijitzeko erabiltzen da (alderantziz eta artikuluarekin).—8. Kontsonantea. Zer gertatu zitzaion Jesukristori, hil ondoren? (alderantziz eta artikuluarekin). Kontsonantea.—9. Ukan aditzaren forma (alderantziz). Bokala.—10. Nota musikala. Kontsonantea.—11. Aintzina nola pasatzen ziren mendez mende gure lege zaharrak? (alderantziz).

Goitik behera: 1. Poza.—2. Ar. U.—3. Goiz. R.—4. B. Gortea. U.—5. Egun. Bainu.—6. Horia. Eper.—7. Bero. Olio.—8. R. Piztea. G.—9. Diat. E.—10. La. L.—11. Ahoz. Legorburu.

AZALPENA. Ezker aldetik eskuin aldera: 1. Behor.—2. Gortea. U.—3. Gurea.—4. P. Ganibet. Z.—5. Zora. A. Tallo.—6. Zaitu. Haizta.—7. A. Dioenez. A.—8. Pipia.—9. Lea.—10. Legorburu.

500

OHARRA




Zein xanpan edan zenuten jaietan?

EUSKAL SALDA

I	N	O	C	V	K	A	C	O	C
A	A	R	D	O	A	S	I	H	W
N	R	I	W	D	G	B	R	A	C
I	A	D	H	K	I	N	Z	H	O
L	X	K	I	A	R	D	A	T	H
O	T	A	S	E	A	M	I	C	O
K	A	Z	K	E	P	I	S	K	Y
A	P	E	I	A	Y	R	O	E	D
X	O	P	A	S	I	N	A	R	U
T	X	O	I	K	L	I	N	O	V

Goiko koadro horretan zortzi edariren izenak daude zuzenean jarrita. Aurkituko ote dituzu? Kontuan hartu behar duzu eskuinetatik ezkerretara, ezkerretatik eskuinetara, goitik behera, behetik gora edo zeharretara, diagonalean ere egon daitezkeela, bai eta elkarren artean gurutzaturik ere.



HIEROGLYPHIKOAREN ERANTZUNA:

De la Pierre

EUSKAL SILDAREN ERANTZUNAK:

Ardoa, anisa, txakolina, patxaran, whiskia, cognac, kirsch, vodka.

HIZTEGIA

IMANOL BERRIATUAK

Ale honetan izartto batekin agertzen diren berbak

ABANTAIL, *ventaja*.
 ABURU, eritzi, uste.
 ADABAKI, *remiendo*, morceau à rapiécer.
 AGERI, *documento*.
 AGIAN, beharbada, nonbait.
 AHANTZI, ahanztu, ahaztu.
 AINTZINTXEAN, aitzintxean, un poquitin antes.
 AIPATU, aipatutako, aipaturiko, aipaturikako.
 AISA, aise, erraz.
 AISLATU, isolatu.
 AITA PONTEKO, padrino, parrain.
 AITONA, abuelo, grand-père.
 AITORSEME, hidalgo, noble.
 AITZITIK, al contrario.
 AIZU, adi ezazu, adi elzu.
 AL DAKIK, dakika?
 ALAZANKOA, alajainkoa, alajaina, pardi, pardi.
 ALDE, diferentzia.
 ALEGIA, a saber, es decir, esto es.
 ALOKAIRU, soldada, jornal.
 APAIRU, comida en general.
 ARABERA, arauera, según, conforme.
 ARAKATU, aztertu, ikertu, miratu, registrazio.
 ARAUERA, arabera, según, conforme.
 ARDURA, axola.
 ARE, oraindik, aún, encore.
 ASKI, nahiko.
 ATZERA, berritro.
 AUKERA, hautu, hautapen.
 AURKEZTU, presentatu.
 AZAL, sobre, envelope.

BA, bada, pues.
 BAILIREN, como si fuesen.
 BAITZEPADAKO, beharrezko, derrigorrezko.
 BATIK BAT, batez ere, bereziki, guztiz ere.
 BATZUK, zenbait. (Batzuek aktibo, batzuk pasibo).
 BEDEREN, behintzat, behinik behin, guttienez.
 BEHIALA, behinola, en otro tiempo.
 BER, por el hecho mismo de que...
 BEREKIL, automóvil.
 BERRONESPEN, ratificación.
 BESTABURU, festaburu, fiesta grande.
 BESTE, adina (aina), bezainbeste, bezainbat.
 BESTERIK, baino.
 BEZERO, cliente.
 BILAKA, convertirse.
 BORDELE, Burdeos.
 BORTIZKI, violentamente.

DAGOENENKO, dagoen orduko.
 DAGOKE, dago nonbait.
 DAKIEGU, dakigu nonbait.
 DAKUSKIGU, ikusten ditugu.
 DATZA, consiste. (Etzan aditzaren forma).
 DEA, al da?
 DEITZE, llamar. (Aditz honek akusatiboa eskatzen du).
 DELIBERATU, erabaki.
 DELIBERO, erabaki.
 DEUS, ezer.
 DEUSEZTATZE, ezereztatze.
 DUDA-MUDAKO, sospechoso.
 DUKE, du nonbait.

EBATZI, resuelto. (EBATSI, robado).
 EGURATS, atmósfera.
 EHUNEKO BI, ehunetik bi, dos por ciento. (J. R. Etxebarriak fisika irakasten du Lexonako Unibertsitatean. Haren ustez, zientzi arloan agertzen diren beste adierazgarri askoren antzera eta mendealdeko hizkuntza guztietan egiten den bezala, portzentuaren adierazgarria —idaztean— zenbakiaren ondoan jarri behar genuke, irakurtzean alderantziz egin arren).
 EKARRI, aportado, aportación.
 EKIALDE, eguzki alde, oriente, Este.
 ELABERRI, novela, roman.
 EMAN, ematen Iparraldean.
 ENDA, raza.
 ERABAT, guztiz, osoki, zeharo.
 ERAGILE, ejecutivo.
 ERAKUNDE, organismo, entidad, organización.
 ERASO, ataque.

ERDITZE, erditzapen, alumbramiento, parto.
 EREMU, terreno, campo.
 ERIZAIN, enfermero.
 ERORI, jausi.
 ERREGALU, regalo, cadeau.
 ERREGEBIDE, camino real.
 ESKUALDE, comarca.
 ETSITU, resignado, desesperanzado.
 EZEZIK, no solamente.

FROGA, prueba.
 FROGANTZA, prueba, demostración.
 FROGATU, probado, demostrado.

GABE, en vez de, au lieu de.
 GARAMATZA, garoaz, eramaten (eroaten) gaitu.
 GARATEKE, gara nonbait, debemos de ser, seremos.
 GAZTETANDIK, gaztetatik.
 GEHIENGO, gehientasun, mayoría.
 GISA, modu.
 GOBERNAILU, órgano de gobierno.
 GOGAIKARRI, fastidioso.
 GOIBOTERE, poder supremo.
 GORABEHERA, a pesar, malgré.
 GOROLDIO, musgo, mousse.
 GOTOR, vigoroso, desarrollado.
 GUDUKA, harmatuaz beste biderik, otro camino que la lucha armada.
 GUTIZ GEHIENAK, casi todos.

HAINTZAKOTZAT, en consideración.
 HALABER, igualmente, así mismo.
 HALTZARI, mueble.
 HANARTEAN, mientras tanto. (Larresorok H jartzen dio).
 HARTZE, crédito, haber. (Hamar pezeta hartze ditut, se me deben diez pesetas).
 HAU, honeek. (Hauek aktibo, hauk pasibo).
 HAUZI BOTERE, poder judicial.
 HAZIL, noviembre.
 HERABE, tímido.
 HERTSI, estrecho; cerrado.
 HEZATZE, humedecer.
 HOIK, horik, horreek. (Hoiek aktibo, hoik pasibo).
 HORIK, hoik, horreek. (Horiek aktibo, horik pasibo).
 HOTS, a saber, es decir, esto es.
 HURA, ha.

IA, kasik.
 IDOROTE, edirete, aurkitze.
 IHAZLEHEN, año antepasado.
 IKERTZAILU, investigador.
 ILE, ule.
 INAUSKETA, xedarraketa, poda, émondage.
 INGURUMARI, contorno, derredor.
 INOZO, bobo, apocado.
 IRAGAITZAZ, de paso.
 IRATXO, duende, petit fantôme.
 IRI, proximidad. (Iri irian dago, está muy cerca).
 ISTRIPU, accidente.
 ITSATSI, adherido, pegado.
 ITZALI, amatu, iraungi.
 IXILIK, a escondidas, à l'insu.
 IZADI, creación, universo.
 IZKUTU, ezkutu, oculto, reservado.
 IZUARGI, fuego fatuo.

JADANIK, ya.
 JAREGIN, soldado, librado.
 JASATE, soportar, sufrir.
 JAURERRI, señorío.
 JAZO, gertatu.
 JOSTAILU, juguete.

KAMUSTU, amustu, desafilado, embotado, émoussé.
 KANTZER, bizien, minbizi, txanguru, cáncer.
 KARIA, motivo.
 KAUSITZE, aurkitze.
 KOHETE, suziri, cohete, fusée.
 KOKATZE, situarse.
 KONPROMETATU, engalatu.
 KONPROMISO, konpromisu, engalamentu.
 KOXKA, picar, ponchar.
 KUTSADURA, contaminación.

LAGUN GINTZATELA, lagundu gindeiezala, que nos ayudasen. (Aditz honek akusatiboa eskatzen du).
 LAIN, adina (aina), beste, bezainbeste, bezainbat.
 LEGEGAILU, órgano legislativo.
 LEGEZ, lez, bezala.
 LEHENENGO, lehen.
 LEKUKO, testigu.

MANATU, agindu.
 MENDEBALDE, mendeal alde, occidente, Oeste.
 MENDEURREN, centenario.
 MUKURRU, colmo, tope.
 MURRIZTU, pelado, despojado, tachado.
 MW-EKO, megawatt-eko.

NAHIKO, aski.
 NORABIDE, rumbo, dirección.

ONDARE, herencia.
 ORBAIN, orban, cicatriz.
 OROZ LEHENIK, antes que todo.
 ROTAN, leku guztietan.
 OSTERANTZEKO, distinto, diverso.
 OTSAIL, febrero.
 OTZANTASUN, masedumbre, mansuétude.

PAIRATZE, sufrir.
 PATXARAN, basaranez egindako nafar edaria.
 PROFITATU, probetxatu, aprovechado, mis à profit.

SAMUR, bigun.
 SAR, sar eraz. (Ene ustez, Hegoaldeko idazleentzat euskara batuak duen gau-

zarik zailena, infinitiboaren erabiltzea dateke).
 SEGURTA, segura, asegurar. (SEGURTA-TU, seguratu, asegurado).
 SETAKERIA, obstinación morbosa.
 SOBERA, lar, larregi, gehiegi.
 SORKARI, creación, cosa creada.
 SORTZE, jaiotza.

TANTA, gota.
 UDAL, ayuntamiento, municipio.
 UKAKOR, negativo.
 UKAN, izan. (Ukan aktibo, izan pasibo).
 UREZTATZE, regar, arrosar.
 URTARO, estación, saison.
 URTEURREN, aniversario.
 UTIKAN, a paseo, al traste.
 UZTA, cosecha, récolte.

ZAPUTZ EGIN, mostrar retraimiento, montrer un air revêche.
 ZATEKEEN, zen nonbait.
 ZEGOKION, jagokon, tokatzen zitzaion (jakon).
 ZELAN, zela, nola.
 ZEREN, ze, pues.
 ZILEGI, lícito.
 ZIPRIZTINTZE, salpicar, éclabousser.
 ZITZUKADA, gran silbido, grand sifflet.
 ZOTAL, dies sortalis. (Gure arbasoek uste zuten, urtarrileko hamabi lehen egunetarik bakoitzak aurretik salatzen zuela nolako haroa izanen zen, berari zihokion hilabetea. Urtarrilaren lehena nolako, urtarrila batez beste holako; urtarrilaren bira nolako, otsaila holako, eta abar).
 ZURRUNDU, vuelto rígido.

HITZAK ETA ESALDIAK

BESTE ALDIZKARIETAN AGERIAK

Gu giristinoentzat Eguberri, oroz^{*} lehenik, bestaburu^{*} saildu bat da. LAFITTE.

Abenduaren 31n, gauerdian irian^{*} etxe bakoitzetik norbait joaten zen hurbileko iturbururat eta handik ekartzen zuen ur berria. LAFITTE.

Zernahi den, Aita Saildu Julio Lehenak hil aintzintxean^{*} manatu^{*} zuen, Kristoren sortzea^{*} orotan^{*} ospa zedin abenduaren 25ean. LAFITTE.

Ez dakigu xuxen, zer kariaz^{*} gizonetarik bereiz egiten zuten emaztekiek apairu^{*} hori. LAFITTE.

Sineste zaharren arabera, Eguberri ondoko egunak argi eta garbienak ziren ber^{*}, gure arbasoek uste zuten urtarrileko hamabi lehen egunak zotalak^{*} zirela. LAFITTE.

Bigarren ipuinak aipatzen du nola Egyptoko mugan Ama Birjina eta San Josepe lanetan ziren, Jesus haurra ez jakinez nola pasaraz garduen ixilik^{*}. LAFITTE.

Oso gaztetandik^{*} sortu zitzaidan euskaraz ikasteko asmoa. LARRESORO.

Hantxe piztu zen nigan, nik uste, euskaraz ikasteko delibero^{*} tinkoa. LARRESORO.

Hanartean^{*} denok dakigu, ikastolak nola ordaintzen diren. LARRESORO.

Eta oroit, gutiz^{*} gehienak eskolatuak direla. LANTZIRI.

Baionako hiriak goresmenak hartze^{*} ditu. LANTZIRI.

Euskal Herri barneko herri gotorretan^{*} ere ez dugu lantegi berrien alderako lehia haundirik ikusten, Maulen eta Hazparden salbu. LANTZIRI.

Orain, demokrazia hilez gero, guduka^{*} harmatuaz beste biderik ez dago. DAVANT.

NUKLEAR ZENTRALAK EUSKAL HERRIAN (2)

Bigarren artikulu honetan, nuklear zentralen radioaktibitateak sortzen dituen problemak aztertuko ditut, radioaktibitateak ematen baitie zentral hauei beren berezitasuna. Eta radioaktibitateak gizonari zenbait kalte egin diezazkiokeenez gero, kalte hauen zergatikoa, nolakoa eta norainokoa aztertzea guztiz interesgarria delakoan, ekin egingen gaitzaizkio aztertze horri.

KUTSADURA RADIOAKTIBOAK

Zentralen kutsadura* radioaktiboa Estatu guztietako lege batzuen arabera* kalkulatu da. Lege horietan, pertsona batek bizitza guztian har dezakeen dosi radioaktiboa, 5 rad baino gutiago izan dadin agintzen da. Eta, egia esan, lege hau bete eragiten da.

Lehenago, dosi hau ez zela inola ere kaltegarri pentsatzen (niri horrela irakatsi zidaten behintzat). Hala ere, amerikar ikertzaile* talde batek, John W. Gofman fisikariaren eta Arthur R. Tamplin biokimikariaren gidaritzapean, rad bakoitzeko 2 % (ehuneko* bi) kantzer* gehiago agertzen dela frogatu* du. Beraz, 5 rad-eko dosia harturik, kantzeraren portzentua 10 %-an (ehuneko hamarrean) gehituko da.

Bestalde, bai Hiroshiman bizirik geldituak eta bai Britainia Handian X izpiez tratatuak aztertuz, lehenik leuzemia eta gero beste kantzer mota batzuk* sortzen direla ikusi izan da. Lehenbiziko kalkulatu batzuetan, leuzemia bakoitzeko beste kantzer mota bat sortzen zela aurkitu zen. Baina Amerikako ikeritzaile talde horrek demostratu du, leuzemia bakoitzeko, ez bakarrik kantzer bat, baizik eta HOGEI kantzer sortzen direla.

Kutsadura radioaktiboaren efektuak gutitzeko, aipatu* ikeritzaileok legearen aldatzea eskatu dute, dosi zilegia* hamar bider gutiago izan dadin. Hala ere, Atomic Energy Commission izeneko amerikar elkarteak ez die kasurik egin, eta legea aldatu gabe geratu da. Askotan gertatzen den legez,* tartean ekonomi arrazoinak omen daude.

HONDAKIN RADIOAKTIBOAK

Nuklear zentraletan sortzen den bigarren problema berezia, hondakin radioaktiboena da. Zer dira hondakinok? Hara: zigarroa erretzean errautsa geratzen den bezala, uranioa «erretzean» hondakin batzuk gelditzen dira, eta hondakinok radioaktiboak dira.

Noizik noizera (urte birik behin, adibidez) reaktorea berriro kargatzen denean, hondakin radioaktiboak kanpora ateratzen dira. Eta, oso arriskugarriak direnez, kalterik egin ez dezaten, toki apropos batetan gorde behar dira. Baina zein da toki egokia?

Lehen, kutxetan sartzen ziren hondakinok, eta itsasleizeetara jaurtikitzen. Orain, galerazia izan da hori egitea; kutxak apurtuko balira, itsasoa kutsatuko litzateke eta.

Orainsuago, gatz meatokietan gordetzea pentsatu da, leku guztiz segurak direlakoan; baina geologi azterketek frogatu dute, zenbait kasutan ez dela horrela.

Azkenik, koheteetan* sarturik, eguzkirantz bidaltzea pentsatu da. Hala ere, koheteak jaurtikitzean, istripuren* bat gertatuko balitz, radioaktibitatea eguratsera* iraganen litzateke, eta hori izugarria izanen. Izan ere, azken urteotan holako zenbait istripu ikusi ukan dugu APOLLO programan. Beraz, metodo hau ere ez da egokia.

Ikusten denez, oraino ebatzi* gabe dago hondakin radioaktiboek sortzen duten problema.

RADIOAKTIBITATEAREN ERAGINA

Radioaktibitateak era bitako eragina ukan dezake gure gorputzean.

Batetik, kanpoan dauden gorputz radioaktiboek izpi batzuk botatzen dituzte, eta izpi hauk* gure gorputzean barrena sartzen dira. Zenbat eta gorputz radioaktibotik urrunago gauden, hainbat eta radioaktibitate gutiago sartzen da gure gorputzean.

Bestetik, gorputz radioaktibo bat (jatean, arnasa hartzean...) gure gorputzean sartzen bada, izpiak gure barruan sartzen dira, eta eten gabe pairatzen* dugu radioaktibitatearen eragina. Ba dira, gure gorputzak bereganatzen eta gordetzen dituen elementu kimiko batzuk; eta horrez gainera radioaktiboak badira, haien efektuak luzaro irauten du. Adibidez, hor dugu strontium delakoa, calcium elementuaren antzekoa izanik, hezurretara doana.

Elementu radioaktiboak ez dira zuzenean sartzen gizonaren gorputzera. Atmosferatik edo lurretik landare eta belarretara iragaten dira. Belarretatik behietara, eta behietatik bai okelan eta bai esnean guregana pasatzen dira.

GERTA DAITEZKEEN ISTRIPUAK

Estatu bakoitzean zentral bakar bat balego, ez litzateke problemarik sortuko. Baina begira, zer gertatuko den ondoko urteetan! Frantzia, 2000. urterako, 1000 MW-eko* berrehun bat zentral eraikiko omen dira. Kontutan hartu behar dugu, radioaktibitatearen efektuak akumulatu egiten direla, zentral horien radioaktibitatea batu egiten dela, eta radioaktibitate horiek urteetan eta mendeetan zehar iraunen duela.

Horixe jazoko* da, zentraletan istripurik gertatzen ez bada, eta zentralok guztiz ondo lan egiten badute. Eta istripurik jazoko balitz? Nuklear zentralak kasu horretarako ere preparaturik egon arren, ba liteke, gerra batetan edo, istripuren bat gertatzea.

1000 MW-eko zentraletan, Hiroshimako lehergailuak sortutako radioaktibitatea baino mila bider handiagoa sortzen da. Ba ote dugu esperientziarik nahiko,* egunen batetan radioaktibitate hori guztiori askatuko ez denik segurtatzeko?

Bestalde, reaktoreko zirkuituak hertsia* izan arren, beti egon daitezke, istripu baten kausaz, elementu radioaktiboak gaitzeak, eta berauek zentralaren inguru guztia kutsa lezakete.

Esandako guztia ezaguturik, erantzunkizun handia dute zentral hau eraikitzen dituztenek, gure gizaldiaren eta datozen gizaldien aurrean. Mundu guztiko ekologoak nuklear energiaren aurka altxatu dira. Baina, dirudienek, hemen ere ekonomia da nagusi.

J. R. ETXEBARRIA

daude, **dagoz**
dezake, **daike**
dezaten, **daien**
die, **deutse**
diezazkioke, **deiskioz**

gaitzaizkio, **gatxakoz**
gaude, **gagoz**
lezakete, **leikee**
zidaten, **eusten**